

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko abenduak 15 · 1293 zenbakia



NEGUKO AHOTS GAZTEAK

2mó 99€

erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiopticas.com




Zorionak



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikari Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikari Diplomatua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etegabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 **Facebooken:** Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Jon Maiak 'Kantu berri bat gara' disko-liburua kaleatu berri du eta horren inguruan prestatu duen ikuskiuna zuzenean ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 12an, Coliseo antzokian.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Maitane Campos

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

**A30eko Grebaren inguruko lehen balorazioa**

Aurtengo Azaroaren 30a ez da nolana hikoia izan. Lan askoren fruitu izan da egunak emandakoa; beraz, lehenik eta behin **zorionak eta eskerririk asko** bide honetan zuen alea jarri duzuen guztioi: prozesuan inplikatu zareten eragileei, greba egin duzuen guztiei, zaintza langileei... eta, batez ere, Greba Batzordean lanean aritu zareten guztioi.

Ez zen eronka erraza San Andres egunarekin batera tokatu zaigun Greba Feminista Orokor hau aurrera ateratzea, baina egin dugu! Bidea zaila izan da, Eibarko Udalak, eta bereziki Jon Iraolak, oztopoak besterik ez dizkigu jarri, baita egunean bertan ere. Hasieratik esan genuen, eta berriz diogu: Sistema publiko komunitario bat eraiki nahi badugu udalarekin elkarlana beharrezkoa izango da, beraz, guk horretan jarraituko dugu. Erakutsi dugu Eibarrek baduela elkarte-sare indartsua, harro egoteko modukoa, zaintzaren inguruan konpromisoa hartu eta bere helburuen alde borrokatzen duena. Udalak ezin du beste alde batera begira jarraitu.

Herriko kaleak gure aldarritz bete genituen. Eguerdiko mobilizazioa, “Zaintzaren testigua”, izan da horren erakusle nagusia, herriko eragile desberdinak inplikatu baitira bertan, zaintzaren auzia mahai gainean jarritz eta beren konpromisoa erakutsiz. Gainera, eragileak ez ezik norbanako ugari ere bildu ziren, mobilizazio jendetsua osatuz. Erakutsi dugu asko garelako herrian zaintzaren auziaren inguruko kezka dugunak eta gauzak aldatzeko prest gaudenak; zaintza-sistema publiko-komunitariora bidean lehen urratsa izan da.

Bidean mugarrak bat baino ez da izan greba hau, prozesua baita garrantzitsua, baina zer nolako mugarrak Eibar! Lortu dugu zaintzaren gaia problematizatu eta mahai gainean jartzea, eta baita gure arteko aliantzak lantzea ere. Bidearen hasieran gaude, bildu atzoko indarrak, **hau hasiera besterik ez da!**

A30 Greba Batzorde Feminista**Eibarko Udalak ez du esan ziguna bete**

Orbea kiroldegiko harrera/spa eta garbitasuneko langileak gara. Gure lan egoera prekarioa zela eta, udalak azpikontratatura dituen BPX (Harrera/Spa) eta Gureak (garbitasuna) enpresei lan baldintzak hobetzeko eskaera egin genien orain dela bi urte, nahiko arrazoit genituelako:

Orbea kiroldegiko harrerako langileoi 2012an iraungita dagoen hitzarmena aplikatzen digute, eta orain dela 14 urte genuen soldata berarekin jarraitzen dugu. Gure maila bereko Ipurua eta Unbeko langileek urtean guk baino 6.000 euro gehiago kobratzen dute, guk baino 100 lanordu gutxiago eginez; gure lanak ere pareko balioa duela aldarrikatzeko hasi ginen borrokan, bidezkoa iruditzen zitzaigulako.

Garbitasuneko langileak, berriz, inoiz ez dute ordezkapenak egiteko lagunik, eta jai egun eta oporretan bakar baten gain geratzen da instalazio osoko garbitasuna. Hori aldatzeko hasi ziren gurekin batera hobekuntzak eskatzen.

Bi enpresek esan ziguten ez zituztela gure baldintzak hobetuko Eibarko Udalak eurei ere hobekuntzarako biderik ematen ez bazien. Hortaz, Eibarko Udalera jo genuen; azken batean, gu egoera honetan egotea Udalak onartzen du, bera baita enpresei esleipenak egiten dizkiena.

Egoera azaldukoan erantzun zituzten ez zuela zentzurik Ipurua eta Unbeko langileak Udalaren agintepean egotea, eta Orbeako azpikontratatura. Bi kiroldegien baldintzak jarriko zizkigutela esan ziguten, beste promesa huts batzuekin batera... Denbora aurrera, ez zigutenez ezer sinatu, greba deialdia bota genuen mahaira. Garbitasunekoak 17 eguneko greba egin zuten eta Jon Iraola Eibarko alkatearen idatzia jaso genuen, gure egoera aldatzeko tramiteak hasiko zituela esanez.

Orain jakin berri dugu, ofizialki ez bada ere, Udalak egindako promesak ez direla beteko, ez gaituztela Unbe eta Ipuruako langileen egoera berdinean jarriko eta, bestek egiten duten lan bera eginda ere, orain arteko baldintza prekarioetan jarraitu beharko dugula Orbea Kiroldegian.

Sare sozialetan eta abarretan dena polita dela erakusten bada ere, gauza zatar hauek ere badaude. Gurekin jolasean ibili direla sentitzen dugu; hala ere, gure egoera hobetzeko borrokan jarraituko dugu.

Orbea kiroldegiko harrera/spa eta garbitasun langileak**Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera**

OSKOLETIK URTEAN BAIÑO LEHEN, KUKURRUKUA → Oraindik koskortu gabe egon arren, heldua izan nahi duenari esaten zaio.

OSABETARA → Bizidunak izan arren, bizigabeak moduan deklinatzen dira hainbat hitz: medikura, gurasuetara. “Astixa daukat, nahi badozu osabetara agertu bat egin”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 15
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 16
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
DOMEKA 17
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 18
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 19
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 21
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
BARIXAKUA 22
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Margarita Sanz Gomez**. 87 urte. 2023-11-26.
- **Ramiro Lafuente San Jose**. 78 urte. 2023-11-26.
- **Carmen Abascal Maraño**. 83 urte. 2023-11-27.
- **Julio Abraham Del Rio Chocan**. 68 urte. 2023-11-29.
- **Marirene Ezenarro Ibarro**. 93 urte. 2023-11-29.
- **Sabino Ansotegi Juaristi**. 87 urte. 2023-11-29.
- **Martin Kerejeta Larrañaga**. 90 urte. 2023-11-30.
- **Jesus Larrañaga Ansola**. 91 urte. 2023-11-30.
- **Daniel Ayala Larrea**. 82 urte. 2023-12-02.
- **Andoni Amutxastegi Mujika**. 62 urte. 2023-12-04.
- **Fyssal Messaoudi**. 36 urte. 2023-12-04.
- **Miguel Errekalde Basauri**. 57 urte. 2023-12-05.
- **Ascension Alaña Salazar**. 91 urte. 2023-12-05.
- **Jose Antonio Orueta Oñederra**. 82 urte. 2023-12-05.
- **Aurea Landaluze San Juan**. 87 urte. 2023-12-08.
- **Angel Uribarri Garitazelaia**. 81 urte. 2023-12-08.
- **Juan Luis Agirregomezkorta Amallobieta**. 79 urte. 2023-12-09.
- **Jesus Maria San Martin Azpiri**. 74 urte. 2023-12-09.
- **Maribel Oiarzun Zarraua**. 85 urte. 2023-12-10.
- **Andresi Olasolo Eizagirre**. 87 urte. 2023-12-10.
- **Petra Soto Sorrigueta**. 93 urte. 2023-12-11.
- **Felisa Txurruka Sarasketa**. 94 urte. 2023-12-12.



Juan Bautista Gisasola Eibarko Musika Eskolan eman dute ezagutzera 23. KORRIKA kanta, eta Maite Arroitauregik ikasle batzuen laguntza izan zuen abesteko. SILBIA HERNANDEZ

‘Harro Herri’ 23. Korrika kanta aurkeztu dute

Aste honetan aurkeztu dituzte 23. Korrika kanta eta bideoklipa Maite Arroitauregi musikariak eta Ane Elordi Korrika arduradunak, Juan Bautista Gisasola Eibarko Musika Eskolan. Arroitauregik bere ikasle izandako neska-mutil batzuekin batera kantatu zuen *Harro Herri* abestia, eta jarraian kontatu zuen prozesua nolakoa izan den.

Arroitauregiren berbetan, lana “ezberdina” izan da, gutxi izaten baitira enkarguz egindako lanak. Nabarmendu zuenez, pertsona askok osatutako lantalde batek sortu du kanta, eta abesteko orduan ere ez da ahots nagusirik bereizten, hain zuzen ere egileak masa bat irudikatu nahi izan duelako. Arroitauregiren berbetan, “hiru kanta ezberdin dira, kantu bakar batean”. Sei edo zazpi zati dauzka abestiak, kantuaeren barruan hiru kanta ezberdin, eta minisinfonia moduko zerbait oharkabean: “Atea zabaldu diegu azelerandoei, disonantziei, kaos modukoei, keinuei... Eta hainbat kantariren artean abestia egon arren, apenas inor ez nabarmentzeari, masa bat irudikatzeari”,

Bideoa ikusgai gure YouTube kanalean



azaldu zuen Arroitauregik. Prozesua luzea izan arren, “elkarrekin egiten asko gozatu” dutela ere esan zuen: “Letratik abiatu ginen kantu pop bat egiteko, eta behin hezurdura eta melodia nagusia argi samar genituela hasi ginen konponketak proposatzen eta jolasten, askotariko ideiak botatzen eta eztabaidatzen, ados egon garen arte %100ean. Berrehunka pista zirriboratu eta milaka aldiz entzun eta gero, emaitza pop-barruko kantu bat izan da”. Harrerari dagokionez, kontuan izan dute horrelako abesti bat publiko zabalarari zuzenduta dagoela, eta berdin balio behar duela umeek abestu eta dantzatzeko, lagunarteko festarako, zein errepidean denok bat eginda oihukatzeke. Bideoklipa, berriz, Amaia Badiola Elgezabalek egin du eta, batez ere, aurreko edizioetako irudiz osatuta dago, “23 edizioek eta 43 urtek askotarako ematen dute eta”.

23. Korrikarako arropak salgai daude AEK Euskaltegian eta Interneten

2024ko martxoan egingo den 23. Korrikako arropa dagoeneko salgai dago Eibarko AEKn. Erosi nahi duenak euskaltegira jo dezake, 09:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara. Horrez gain, abenduaren 23an, zapatua, 11:00etatik 14:00etara mahaia jarriko dute Untzagan (Guridi inguruan). Helduentzako eta haurrentzako arropa eros daiteke: kamisetak, lepokoak, giltzakoak, biserak... Katalogoa www.korrika.eus helbidean ikus daiteke, eta bertan online erosteko aukera ere badago. Horrez gain, Korrika laguntzaile izateko aukera ere zabalik dago. Informazio gehiagorako telefonoz deitu (943201379), edo sare sozialetan begiratu (@eibarko_aek) daiteke.



Azitaingo bizilagunak omentzeko egitarau betea

Azitain auzoari bizitza emateko asmoz, bertan jaio edo bizi izan direnek hainbat ekintza prestatu dituzte abenduaren 21erako. Horrekin batera, egitasmoak auzokideak omentzeko balio dezala nahi dute eta egitarau betea prestatu dute horretarako. Belaunaldi ezberdinetako lagunek hartu dute parte egitasmo horren antolakuntzan, Aitor Alberdi Azitaingo semeak esan digunez: “Carlos Abad saltsero bat da eta buruan zeukan horrelako zerbeit egitea, auzoari

bizitza eman eta auzokideak omentzeko. Izan ere, gaur egun gure sasoiko jende gutxi geratzen da auzoan bizitzen”.

Gazteekin batera prestatu duten egitaraua 17:30ean hasiko da, Gure Kaiola tabernan. Bertan, Lorea Urkiak, Sara Abadek, Ainara Vilak, Jon Cidek, Leire Cabok eta Hegoi Estebanek ongietorria emango die bertaratzen direnei. Jarraian, Julio Zalabardo eta Anartz Esteban trikitilariekin kalejira egingo da, elizaraino. Jarraian, 18:00etan Jon

Iraola alkateak diplomak emango dizkie Azitain auzoa ezagutzera ematen lagundu dutenei. Ondoren, Lorea Urkiak Azitaingo enbaxadoreak euren proiektuak aurkeztuko ditu eta, gero, maila handiko ikuskizuna eskainiko dute Andrea Gonzalez Caballerok, Jon Larraetegi Abadek eta Jesus Bastidak. Horren ostean, orain dela urte batzuk Pedro Eguiguren ‘Izkuari’-ri, Jose Luis Urzuriaga ‘Sumendixa’-ri eta Miguel Maria Agirrebeña ‘Loixola’-ri egindako omenaldiaren bideoa emango dute. Eta, amaitzeko, Azitaingo Lanbide Heziketako Eskola bisitatzeko aukera egongo da, eta piskolabisa eskainiko dute bertan.

Gaur zabalduko ditu atek Eibart Gabonetako Artisautza Azokak

Eibarko artisauen elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako Eibart Gabonetako Artisautza Azokak gaur zabalduko ditu atek, Untzagan. Aurtengoa 19. edizioa izango da eta hamar bat stand egongo dira. Bertan artisaulanak (Zu gehi ni, Hartara, Isabel Orozco, Eskune, Bitxit Kool La-

zaera, Mouxka, Eskulan) eta elikadura-produktuak (Lizagasar, Galletiak, Egotza-Maison Dufrexe) erosi ahal izango dira. Urtarrilaren 5era arte zabalduko dute, egunero, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era (abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik).





Giro ederrean ospatu zen Plazara Dantzara

Hogeita hamar urte geroago, sasoi betean jarraitzen du Kezka dantza taldearen ekimenez urtero sanandresetan ospatzen den Plazara Dantzara erromeria. Aurten zapatuan ospatu da dantzaldia eta, horri esker, inguruko herrietatik ere etorri ziren dantzatzera eta ondo baino hobeto pasatu zuten. Erromeriako **argazki bilduma** www.etakitto.eus webgunean, mediatekan ikus dezakezue eta **bideoak**, berriz, gure YouTube kanalean.



Gasteizen ere ospatu zituzten sanandresak

Gasteizko El Portalon jatetxean elkartu ziren Araban bizi diren eibartar asko, urtero bezala San Andres eguna ospatzeko. Aurtengoa XXIII. edizioa izan da eta, kontatu digutenez, “egun zoragarria izan zen. 30 lagun inguru bildu ginen, elkarrekin ospatzeko”.



Etxegabekoentzat arropak bilduko dituzte datorren astean aterpetxean

Eibarko Neguko Dispositibotik etxegabeko pertsoneri babes emateko lan egiten dutenek ezer ez dutenei emateko arropak bilduko dituzte aurten ere, eta herritarrei dei egin nahi diete, erabiltzen ez dituzten arropak aterpetxera eramateko. Datorren astean, abenduaren 18tik 21era bitartean jasoko dituzte, 09:00etatik 13:00era, Neguko Dispositiboan (Iparragirre, 2), Karmeliten elizaren eskumako aldean (sarrera garajeko atetik da). Arropa “egoera duinean” egotea eskatu dute, eta aldeztu aurretik eskertu nahi dute jendearen prestutasuna.



Urbatek sanandresetan zozketatu zuen otarraren irabazlea ez da agertu

Urbat waterpolo taldeak otarra zozketatu zuen San Andres egunean eta 3.740 zenbakia izan zen saritua. Irabazlea, osterara, oraindik ez da agertu eta, agertu ezean, hauek dira erreserbako zenbakiak: 4918, 2336, 5534 eta 0151.



Gipuzkoako udalerrri gehienetan onartu dituzte gutxieneko pentsioak 1.080 euroraino osatzea eskatzeko mozioak

Gutxieneko pentsioen osagarriaren aldeko kanpainarekin lanean jarraitzen dute pentsiodunek, eta horren baitan lau lurraldeetako Udaletan eta Foru Aldundietan mozioak aurkezten ari dira, bi eskaera hauekin: Nafarroako eta EAeko Legebiltzarrei eta Gobernuari, gutxieneko pentsioa 1.080 euroraino osa dezatela, 14 ordainsaritan ordaintzeko, 2023ko urtarriletik

aurrerako atzerakinarekin; eta Nafarroako eta EAeko Legebiltzarrei eta Gobernuari jakinaraztea osoko bilkuran hartutako erabakia. Gipuzkoako udalerrri gehienetan honezkerok aurkeztu dituzte mozioak, "eta 16 udalerritan onartu dute mozioa, bakarrik hiruk baztertu dute". Falta diren udalerrietan (tartean Eibarren) abenduan eta urtarrilean egingo dituzte osoko bilkurak.

Palestinaren kontrako erasoak geratu ditzatela eta bertakoentzat bakea eskatzeko kontzentrazioa

Datorren asteko barixakuan, abenduaren 22an, Palestinari babesa adierazteko kontzentrazioa egingo da, 18:30ean Untzagan. Eibar Palestinarekin eta Eibarko Gerrarik Ez taldekoek antolatuko dute mobilizazioa, eraso eta hilketak geratzea eta bakea eskatzeko.



Oparitu Txartela erosten dutenen artean sari potoloak zozketatuko dituzte

Martitzenaz geroztik martxan dago Eibar Oparitu txartelaren bitartez tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzeko kanpaina berri bat, Eibar Merkataritza Gune Irekia Elkartearen eskutik. Txartelari atxikitako Eibarko denda, zerbitzu eta ostalaritza establezimenduetan erosteko balio duen VISA txartel bat da, eta Gabonetako erosketak egiteko zein oparitzeko balio du. Txartela abenduaren 25era

arte eros daiteke, www.erosieibarren.eus plataformaren bitartez, eta abantailak ere baditu, txartela abenduaren 25a baino lehen erosiz gero, 1.000 euroko opari-txartel baten eta 100 euroko hamar txartelen zozketan sartzen da eta. Txartelek ez dute iraungitze-datarik, eta 200 establezimendu baino gehiagotan erabili daitezke. Informazio zehatza aipatutako webgunean begiratu daiteke.



TOMAS VOUILLOZ

Ur hotzeko pitxer bat

Errealitatea ispilu zehatza da edonorentzat. Kontua da denok ditugula guregan ilunpean mantentzen ditugun alderdiak. Arrazoi ugari eman daitezke, baina funtsean bi dira: erosotasunera hurbildu eta deserosotasunetik alde egin. Eroso egoteko esfortzu handiak egiten ditugu, nahita eta nahigabe, gure irudi osoa zatikatzen eta onartzen ez ditugun zatitxoak kamuflatzen.

Barnean ditugun itzal deserosoekin topo egiteak errua dakar, eta ez da atsegina. Orain zintzotu zure buruarekin eta pentsatu zenbat gauza egiten dituzun erruduntasuna arintzeko. 1) Juergan irtetzen zarenean nahiz eta zin egin duzun ez zinela liatuko, edo 2) telefonoarekin denbora arduragarri bat daramazunean kaka digitala jaten, edo 3) zure harreman esanguratsuetan ondo zaudela antzetzen duzunean, ez molestatzeko... Errua nonahi.

Nola da posible, borondatez, norbere buruaren kontra doan jarrera hartzea? Agian, kontzienteki nahi duguna eta benetan nahi duguna ez dira gauza bera. Kontraesan hauek justifikatzeko aitzakiak eraikitzen trebeak gara.

Erosoagoa da errudun sentitzea 1) lagunek liatu nautelako, edo 2) ez dudalako galdu nahi hortik gertatzen ari dena, edo 3) arazoak ekiditzen ditudalako. Ez hain eroso, ordea, esatea 1) juerga behar dudala bizirik sentitzeko, edo 2) nire bizitzako hutsuneak betetzen ditudala edozer gauzarekin, edo 3) garrantzia kentzen diodala nire sentimenduei traba bat sentitzen naizelako.

Agian, nahiz eta kamuflatu, gure zati ukatuek bueltaka diraute, beren islada garratza jaurtitzen. Erosotasuna bilatzen dugu osotasunaren truke. Askok ukatu beharra dago, ordea. Nortasunaren zati handiegi bat... ez dakit ni izaten jarrai daitekeen hau eta gero. Ez dakit ni izaten eroso egon naitekeenik... Zenbat erruduntasun, e? Hau al da bilatzen ari ginen erosotasuna?

Errua denaren eta izan beharko lukeenaren arteko zauritik isuritzen da borborrean. Errua odola bezala da: denok daukagu, min hartzean ikusten zaigu, eta ur hotzeko pitxer batekin garbitzen da.

“Errua odola bezala da: denok daukagu, min hartzean ikusten zaigu, eta ur hotzeko pitxer batekin garbitzen da”

Koro Gaztearen Gabonetako oparia

Informazio gehiago:



Eibarko Koro Gazteak listoia gero eta gorago jartzen dihardu. Telebistako lehiaketetan parte hartu izan dute, kontzertu eta ikuskizun bereziak eskaini dituzte, mila saltsatan ibili dira eta, orain, apostua bikoiztu eta inoizko erronka handienarekin datoz. 'Neguko ahotsak' izeneko proiektua garatu dute eta, horren barruan, diskoa eta bideoklipa kaleratzeaz gain, ikuskizun berezia emango dute hilaren 23an. Euren ahotsak izango dira Gabonetako benetako argiak.

Urtebete inguruko lanaren ondoren, argia ikusi du Eibarko Koro Gaztearen proiektu handienak: 'Neguko ahotsak'. Gabon kantak ardatz hartuta, abeslari gazteek proiektu oso bat garatu dute, maitasun eta dedikazio handiz, formatu ezberdinetan.

Musikari diren aldetik, disko bat grabatzea ametsa betetzea izan da Koro Gazteko kideentzat. "Betidanik ezagutzen ditugun Gabon kantak abesten ditugu bertan, taldekide guztien artean aukeratu ditugunak". Hala ere, euren proiektua izanda, ezin dugu espero Gabon kanten ohiko diskoa izango denik, eurek berretsi diguten bezala. "Oso disko osoa da. Erritmo aldetik baladak, reggaetoia eta bestelako doinuak entzun ditzakegu", euren berbetan. "Eta hizkuntzaren aldetik ere ezberdina da. Adibidez, ingelesezko abesti batzuk euskaratu egin ditugu. Hala nola, 'Let it snow' abestiari 'Elurra' deitu diogu eta 'Santa Claus is co-



ming' abestiari 'Olentzero Eibarren dago' jarri diogu”, diote. Gainera, diskoaren abesti batzuen alderdi instrumentalean Ustekabe txarangako musikari batzuen doinuak entzun ahalko ditugu.

Taldeko lanaren indarrez atera dute aurrera proiektua, eurek landutako ideietatik abiatuta. “Hori izan da gakoa. Lantalde ezberdinak sortu ditugula eta lanak banatu ditugula, talde-lana sustatuz”, azaldu digute.

Hasierako ideia jarriok abestien moldaketei eman zion bidea, eta gero etorri ziren letren itzulpenak, entseguak, grabaketa, bideoklipa eta ikuskizunaren prestaketa. “Lan oso profesionala izan da, profesionalak sentitu gara. Ordu asko eman ditugu eta jende askok hartu du parte bertan”, euren berbetan.

Korokoek bide luzea egin behar dute diskoa sortzeko, gorabehera asko izan dituen bidea, eta erronka izugarria izan da eurentzat. “Maila handiko proiektua izan da”, esan digutenez, “asko ikasi dugu”

Diskoa sortzearen atzean

Eibarko Udalaren eskutik heldu zitzairen proiektu hau garatzeko proposamena eta oso eskertuta daude proiektua aurrera ateratzeko eman dieten laguntzarengatik. “Betirako eskertuta egongo gara proiektu hau egiteko aukera izateagatik”, diote. “Demaseko esperientzia izan da disko bat sortzearen atzean dagoen guztia ezagutzea”, aitortu digute eta, zentzu horretan, Eibarko Udal Musika Eskolak egindako lan “ikaragarria” azpimarratu dute. “Koroaren eta Musika Eskolako arduradunen artean egindako elkarlana eta esfor-



Eibarko Koro Gazteak bideoklipa grabatu du diskoko abesti batekin. MAITANE CAMPOS

>>> Gabon kantak ardatz hartuta, abeslari gazteek proiektu oso bat garatu dute, maitasun eta dedikazio handiz, formatu ezberdinetan

tzua adierazteko ez daukagu hitzik”, gehitu dute.

Hibai Etxeberria izan da ‘Neguko ahotsak’ diskoaren produktore musikala eta, beste hainbatetan bezala, Walter Tuzzeo ere izan dute bidelagun. “Proiektu asko atera ditugu aurrera bere lanari esker, baina oraingoan diskoak eskatu duen maketazio eta masterizazio lanak maisulan bat ekarri du”, diote esker onez. “Gainera, Legarren grabatzea oparia izan da. Demasa izan da Eibarren toki hori dugula ezagutzea”.



Diskoaren grabaketa Legarreko grabazio estudioan egin dute, Walter Tuzzeorekin. EIBARKO KOROGAZTEA

Proiektuaren aurkezpena 23an

Diskoa gaurtik aurrera dago salgai (Sostoa abesbatzarekin eta Juan Bautista Gisasola koroarekin gaur, 20:00etan, Karmelitetan emango duten kontzertuan erosi ahal izango da, besteak beste) eta bideoklipa eguazten iluntzean aurkeztu zuten YouTuben. Bideokliparen ideia Oihane Zabalak eta Jon Alonsok abiatu zuten eta koroko beste kideen elkarlana ezinbestekoa izan da horren lanketan. AZ Visual Media-ren laguntzarekin egin dute ikus-entzunezkoa eta bertan agertzen den eszenografia Marsiren laguntzarekin osatu zuten. “Momentu hartan sortutako sentazioa paregabea izan zen”, euren ustez.

Datorren asteko zapatuan, hilaren 23an, 19:00etan, “amaiera apoteosikoa” emango diote proiektuari Coliseo antzokian. “Ez da ohiko aurkezpen bat izango, Eibarko Koro gazteak duen esentzia eman nahi diogu. Kontzertu bat baino gehiago, ikuskizuna izango da, antzeztutako

>>> Eguaztenean bideoklipa kaleratu zuten, gaur diskoa eta hilaren 23an ikuskizuna eskainiko dute Coliseon

>>> Taldeko lanaren indarrez atera dute aurrera proiektua, eurek landutako ideietatik abiatuta

zati txikiekin”, dioskue. “Gidoia guk geuk sortu dugu, baina antzezteko orduan Maite Lorenzoren laguntza izan dugu. Ezinbesteko gomendioak eta ideia bikainak eman dizkiguna”, diote esker onez. Izan ere, Maite Lorenzoren, Juanma Cano bezala, Koro Gaztearen ohiko kolaboratzailea da.

Korokoak ez dira bakarrik egongo Coliseoko oholtzaren gainean, Juan Bautista Gisasola korukoen eta Sostoa abesbatzako laguntza izango baitute. “Behin baino gehiagotan egon gara beraiekin proiektu ezberdinetan eta ezinbestekoa zen beraiek estreinaldian egotea”, Koro Gaztekoen berbetan.

Sarrerak gaur bertan jarriko dira salgai Kutxabanken eta Coliseon bertan. Egun gutxi geratzen dira aurkezpen handirako eta koroko kideak gogotsu daude. Bizitzako lana egin dute urte osoan zehar, zerotik hasita, ideia orijinalak sortuz eta esfortzu handiarekin, eibartarroi Gabonetako opari eder hau eskaintzeko.

Milaka esaldi jaso ziren GAITU maratoian

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan, euskarazko ahotsen banku digitala sortzen laguntzeko ahots-grabaketa maratoia antolatu zuen Eibarren AKEBAIk abenduaren lehen bi egunetarako. GAITU kanpaina urrian abiatu bazen ere, ekimenari bultzada berezia eman nahi izan zaio Euskararen Egunaren bueltan hainbat herritan, eta halaxe izan da Eibarren ere.

Dozenaka herritar, elkarte eta eragile hurbildu ziren barixaku arratsaldean Errebal Plazara eta zapatu goizean Untzagako zentro sozialera, bertan eskuragarri ipini ziren ordenagailuak edo norberaren telefono mugikorra erabilita grabazioak egitera.

Egun bietarako antolatutako saioetan milaka esaldi grabatu ziren, eta bertaratzetik izan ez zutenek etxetik egin zituzten grabaketak. Azken egunotan nabarmen egin du gora euskaraz grabatutako ordu kopuruak, Euskal Herrian egin diren hainbat maratoin ostean. Hala ere, kanpaina ez denez amaitu, grabazioak egiten jarraitzeko deia egin dute AKEBAItik.



365 egun euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatu dugu beste behin eibartarrok

Orain dela urte batzuk erabilitako goiburu ezaguna berreskuratu dugu aurten Euskararen Eguna ospatzeko: Eibarren 365 egun euskaraz. Antolaketan diharduen Euskalgintzaren Mahaiak argi izan zuen hasieratik aurtengo leloa: "Euskarak 365 egun dituela aldarrikatu nahi izan dugu, urteko 365 egunetan izan behar dela euskararen eguna, ez dela egun bateko kontua, euskaraz nonahi eta noiznahi jardun nahi dugula, orain eta hemen nahi dugula euskaraz bizi", antolatzailleen esanetan. Domeka eguerdian egin zen Euskararen Eguneko ekintza nagusia; goiburua jasotzen zuten zazpi taula kolorez osatu zituzten Untzagara hurbildu ziren euskaltzaleek, haur zein heldu, eta bertatik sortutako horma-irudia astebetetz egon da ikusgai Txaltxa Zelain. "Ozen aldarrikatu dugu berriz ere Eibarren euskaraz bizi nahi dugula, gaur, bihar eta etzi".

ARGAZKI
GEHIAGO



“Jendeari ikusarazi nahi nion, oso txikiak izan arren, oso handia den historia baten parte garela”

JON MAIA • Bertsolaria eta idazlea



Euskara da euskaldunon identitatearen ardatza. Baina, hizkuntzarekin gertatzen den bezala, denborarekin identitate hori moldatzen joaten da eta, ardatzak berdina izaten jarraitzen duen arren, identitate berriak sortzen dira. Bide horretan, 2021ean ‘Kantu bat gara’ lana kaleratu ondoren, ‘Kantu berri bat gara’ disko-liburua argitaratu du Jon Maia bertsolari, abeslari eta idazleak.

Hamalau abestik eta 60 orriko poemak osatzen dute ‘Kantu berri bat gara’ lana. Maiak izen handiko kolaborazioak jaso ditu lanaren sorkuntzan, eta harribixiz beteta aurkezten zaigu urretxuarraren obra. Silvio Rodriguez euskaraz abesten entzun dezakegu! Orain, zuzeneko ikuskizunak eskainiko ditu eta Eibarren ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 12an, 19:00etan, Coliseon. Sarrerak salgai daude dagoeneko Kutxabanken eta Coliseoko leihatilan ohiko egun eta ordutegian.

Disko-liburuaren aurkezpenean esan zenuen ‘Kantu berri bat gara’ zure lanik handiena dela. Zergatik? Euskal Herria ulertzen dudan moduaren tesia azaltzen da hemen. Aurreko lan edo kantu batzuetan nire bizitza intimoa eta Euskal Herriaren historia elkarlotzeko ariketa egin izan dut, eta uste dut hemen dagoela hori bere modurik handienean edo osoenean. Diskoaren zenbait kantutan eta liburuko poema luzean nire bizitza intimoa eta Euskal Herriko historia kolektiboa etengabe elkar gurutzatzen ditut. Lan honetan ez daude kantuak bakarrik, aipatutako poema ere badago. Gero,

ilustrazioak daude, kontzertuan mugimenduarekin proiektatuko direnak, eta baita kolaborazio asko ere. Geruza asko dira, banan-bana landu behar dituzunak. Beraz, horregatik da hau egin dudan lanik handiena eta konpletoena.

Esan bezala, zure bizitza pertsonala eta Euskal Herriko historia uztartu dituzu, eta aurkezpenean hunkituta azaldu zinen. Lanketa prozesua ere hunkigarria izan da? Sorkuntza prozesu hauek oso prozesu intimoak dira. Barruan ere ariketa asko egin behar dituzu eta asko pentsatu, gogoratu eta hausnartu behar duzu. Idazten duzunean ere birpentsatu egiten duzu askotan: “hau jarriko dut ala gehiegi da?”, “hau leunduko dut?”, “hau esan beharra dago edo ez”, “horrela esango dut?”... Bidean zalantza asko edukitzen dituzu. Niretzat hunkigarria da, ez dakit etorkinen semea naizelako edo, egiten dudan gauza bakoitza Euskal Herriari eta euskarari eman didana itzultzeko egiten dudalako. Orduan, zerbait erditzen dudanean, hunkitu egiten naiz. Nire herriari, sasoiari eta hizkuntzari ekarpen bat egiten ari naizela sentitzen dut. Gauzak oso benetan egiten ditut, oso fikzio gutxi sartzen dut nire gauzetan, bestela ez daukat motibaziorik.



Urtarrilaren 12an zuzeneko ikuskizuna eskainiko du Coliseo antzokian. EKHI BELAR

Nondik abiatu zinen lan hau egiteko?

Abiapuntua diskurtso bat bilatzea izan zen, ‘Kantu bat gara’ lanari bigarren buelta bat emateko. Lan horrekin urte eta erdiko bira egin genuen, disko-liburu arrakastatsua izan zen eta presentzia handia lortu du euskal kultur eskaparartetxo honetan. Orduan, zerk justifikatuko luke bigarren lan bat egiteak? Nire asmoa ez delako abeslari izatea edo abeslari bezala arrakasta edukitzea. Motibazioa bilatu behar nuen eta bueltak eta bueltak emanaz aurkitu nuen. Transmisioa da lan honen ardatza, eta liburuaren azalean agertzen den harritik abiatzen da dena. ‘Bereterretxen kanthoria’-ren oroitarria da berau. Zuberoako auzo txiki batean dago, bide bazterrean, sasi artean, eta euskal kantu zaharrena da. 1400 urte inguru ditu. Mikel Laboak, Benito Lertxundik, Jean Mixel Bedaxagarrek eta beste hainbestek abestu dute. Harri bat duen euskal kantu bakarra da. Niretzat oso sinbolikoa da harri hori, euskal kantarik zaharrena delako eta bizirik iritsi delako Spotifyren eta YouTuberen sasoiara, Coliseo antzokira bizirik iritsiko den bezala, 600 urteko bidaiaren ondoren, ahoz ahoko transmisioan. Gurea

“Bereterretxen kanthoriaren oroitarria oso sinbolikoa da, euskal kantarik zaharrena bizirik heldu delako Spotifyren sasoiara, 600 urteko bidaiaren ondoren”

bezalako hizkuntza txiki batean, lur zatitu batean eta historikoki gertatu zaizkigun gauza guztiak gertatuta, hori ia-ia mirari bat da. Orduan, behin hori formula-tu nuenean, banuen lanaren bihotza edo kontzeptua, eta transmisio hori gizarteratu nahi nuen. Hau da, jendeari ikusaraztea, txikiak izan arren, oso handia den historia baten parte garela, katedral erraldoi baten parte garela.

Lanean 600 urteko bidaia hori islatzen duzu. Kantuak mantendu gaitu bizirik?

Kantu bat garela esaten dudanean, pixka bat kursia izan daiteke, baina zergatik esaten dut hori? Kantuak gure existentziaren metafora bezala hartzen ditut.

Elkarrizketa
osoa

BIDEOA



‘Bereterretxen kanthoria’-k, 1400. urtearen inguruan sortuak, hizkuntza eta identitate guztiak desegiten saiatu diren Errepublika Frantsesa eta Espainiako diktadura, zatiketa administratibo historikoa, legedia guztiak eta gure lurraldean presentzia duten hizkuntza erraldoiak (gaur egungo aro digitalean are gehiago) gainditu ditu. Gure biziraupenaren sekretua kantu honen bidaian dago gordeta. Kantu honek nola lortu du bizirik iristea hori guztia gaindituta? Nola lortu dugu bizirik iristea? Nola lortu dugu zuk eta nik kamera baten aurrean 2023. urtean euskaraz aritzea, mendi eta txabola horietatik sortu eta kobazuloetatik datorren hizkuntza batean? Hori da nire proposamena: kantu horren biziraupena herri honen biziraupenaren irudi bezala hartzea.

Diskoan bidelagunak izan dituzu proposamen hori plazaratzeko. Tartean, Silvio Rodriguez. Lehen aldiz entzun dugu euskaraz abesten. Bere parte-hartzea zer izan da zuretzat?

Kolaborazioak oso garrantzitsuak dira niretzat. Jende askorekin egiten dut lan, horrela egin dut urte hauetan, eta elkarlan horiek bilatzea gustatzen zait. Nire diskoak koralak izatea gustatzen zait. Kolaboratzaile guztiarekin dut kolaborazioa justifikatzen duen harremana. Silviorekin ere banuen, baina berak ez zekien. Oso harreman intimoa zen, haurtzarotik. Jende askori gertatu zaigun bezala, Silvio eta beste kantari asko bidelagunak izan dira gure bizitzan, eta bakardadeko ordu asko bete dizkigute. Bere kantuekin pentsamendu asko formulatzen lagundu digute, negar eginarazi digute eta lagun artean abesteko kantak eman dizkigute. Oso intimoa sentitzen dut eta, aldi berean, badakit Silviorena ahots unibertsala dela. Orduan, ‘Kantu bat gara’ lanarekin ere, banekien nire amets guztiak betetzera joan nahi nuela. Gainera, 50 urte bete nituen eta horrek asko eragin zidan. Denbora badoala ikusi nuen eta ezertan mugatuko ez nintzela pentsatu nuen. Mugarik gabe pentsatze hori gakoa izan da. Amets egitea eta ametsaren bila joatea. Oso gutxi egiten dugu hori. Autozentsuratu egiten gara



“Silvio Rodriguezen kolaborazioa hunkigarria izan da. Eta ez niretzat bakarrik, euskararentzat oparia dela uste dut”

ametsaren bilaketa horretan. Ezinezkotzat ematen dugu Silvio Rodriguezek nirekin, ezezagun batekin, hizkuntza bitxi honetan kantatzea. Ni saiatu naiz eta lortu dut. Kantua asko gustatu zitzaizola uste dut (Gorka Herminosak aurretik konposaturiko musika da, ‘Amore’ izenekoa) eta pentsatzen dut Euskal Herriarekin ere maitasun berezia izango duela. Askotan egon da hemen eta badakit lagun batzuk badituela. Bere adinarekin ausartu da euskaraz esfortzu hori egiten ezezagun batentzat. Niretzat hori hunkigarria da. Eta ez niretzat bakarrik, euskararentzat oparia dela uste dut.



Gabonetako
erosketa gida

#EibarrenBadakagu



Urkizu, 3
943 04 11 86
688 876 518
www.ludotekazorionak.com
www.jugueteriazorionak.com



TXUKUNA

E. Garate, 1
943 82 13 08

- Barruko erropa eta pijamak (ume eta helduak)
- Emakumeen erreduktoreak (aukera handia)
- Artileak



el vestidor

Errebal, 14
607 92 68 86

zorionak!



Laguinda

Zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 18
943 20 84 41



San Juan, 1
943 20 33 29

- Landareak
- Zentro naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua



Zuloagatarren, 1
943 82 15 77

Zorionak!





J. Etxebarria, 6
656 73 21 54

- Denda familiarra
- Urtebetetik L neurriaraino



**GU
BY**

zorionak!



Zuloagarren, 9
943 20 12 40
Birjiñape. 1
943 20 28 33

XARE

Zuloagarren, 1
943 53 67 64
xareibar
www.xareibar.com



Ditare

Urkizu, 7
943 12 73 21



**HILEKOA eta
TXIZA-GALERA
ARINAK
XURGATZEKO
KULEROAK**

- Gizon eta emakumeendako barruko arropak
- Pijamak eta batak...

40 urte baino gehiago zuekin

- Berezitasuna taila handietan!

atelier11

CONCEPT STORE

T. Etxebarria 2
688 68 16 04



#EibarrenBadakagu

 **F. Calbeton, 22-24 behea eskuma**
📞 603 344 258 - 943 38 61 97





**Manikura
Pedikura
Betileak**

klaus Denda Dekorazioa
Erreformak Proiektuak
Estaziño, 3 648 035 528  klauseibar



umea



Errebal, 16 943 20 31 64

Jauregui **San Agustin, 4**
943 20 16 47

Menajea - Beira - Opariak



 **Fermin Calbeton, 5**
943 20 10 14

Jostailu-denda

Jostailuak eta
Otik 99 urtera
arteko jokoak




Zorionak!

CAPi Bidebarrieta, 5 943 201 547
www.capiestetica.es  

UltraLift  **LIFTING
KIRURGIKOAREN
BENETAKO
alternatiba**

Intensitate handiko
ultrasonu fokalizatua

 **BETILE LUZAPENAK / LIFTING**

GORPUTZ TRATAMENDU BERRIA

ZELULITISAekin ERAGINKORRA
DEN TEKNOLOGIA BAKARRA

 **ZONALDEAK
izterrak / ipur-mesailak
besoak / sabelaldeak**

 Azalaren
ELASTIKOTASUNA
hobetzen du

Kopina

San Agustin, 3
943 20 41 81



Twins

zorionak eta urte berri on!

Bidebarrieta, 8
943 05 60 82

www.twinseibar.com

f twins_eibar i twinseibar



San Andres Garategia

Bidebarrieta, 28
943 20 79 73

Pastelak, "txikiak", pastak, rellenoak, bonboiak, tartak...

Enkarguak etxera



BENICOBA

etxeko tresnak

Zorionak eta urte berri on!

Juan Gisasola, 12-14
943 20 39 02



#EibarrenBadakagu

Zergatik erosi herrian?

Denok irabazten dugulako

- 1 Herriko ekonomiari laguntzen diogulako
- 2 Eibarrentzako aberastasuna sortzen dugulako
- 3 Gure herria bizirik mantentzen dugulako
- 4 Komunitatea indartzen dugulako

Buskeraz primeran!

Buskeraz e//

eskatu, erosi euskaraz!



EKAIN ZARRAUA • Bideojoko garatzailea

“The Silent Swan bideojoko lasaia da, baina oso polita”

Praenaris estudio donostiarrak The Silent Swan bideojokoa kaleratu du eta horren atzean dago Ekain Zarraua eibartarra, edo Ekain ‘Highnoon’, gaitzizen hori erabiltzen baitu. Berari esker The Silent Swan bideojokoaren munduan murgildu gara eta lehen eskutik ezagutu dugu. Beraz, Play Station kontsola daukazuenez badakizue non izan dezakezen hurrengo abentura.

Bideojokoen diseinuaren karrera egin ondoren, Praenaris estudioak bidea egiten diharduenez, Ekain Zarrauak Enpresen Administrazioaren masterra egiten dihardu orain Madrilen. “Proiektua aurrera ateratzea da gure plana”, esan digu telefonoaren beste aldetik.

Zergatik erabiltzen duzu Highnoon gaitzizena?

Nazioarteko marka sortzen saiatzen ari gara eta, orduan, ingelesez aritzen gara kanpora begira. Zentzu horretan, Ekain Zarraua Rokandio izanik, azken aldiz norbaitek nire izena esan zuenean gelako altzari guztiak mugitzen hasi ziren, Harry Potterren sorginkeria izango balitz bezala (barreak). Beraz, zerbait ulergarriagoa izateko, izen artistikoa erabiltzen dut, Ekain Highnoon. Eguerdiko eguzkia da Highnoonen esanahia, hau da, Ekain ingelesez.

Ekainek nolako bidea egin du Highnoon bihurtzeko bideo jokoen mundu horretan?

Bide laburra izan da momentuz. Etorriko den guztiaren hasiera dela pentsatzea gustatzen zait. Bideo jokoen inguruko karreraren ezagutu genuen elkar taldekideok eta proiektua hasi genuen. Niri eman zidaten zuzendaritza, ideiak proposatzeko orduan ni nintzelako ideiak zituen pertsona bakarra (barreak). Zentro horretatik atera zen proiektu bakarra izan zen gurea eta jokoen

garapenerako Play Stationek duen programa batean sartu ginen. Jokoa ateratzeko bultzada eman ziguten eta, bi urtetan ateratzea espero genuen arren, hiru urte behar izan genituen. Azaroan kaleratu genuen eta, zorionez, proiektuak ez du taldea hil. Gertatu izaten da jokoa atera eta gero nolabaiteko krisi existenziala bizitzea, baina guk horri eutsi diogu eta hurrengo joakoetan eta proiektuetan lanean gabiltza.

Imajinatzen dut txikitatik izan dezula bideo jokoen afizioa, ezta?

Bai. Txikitatik ezagutzen nautenentzat ez da ezustekoa izango nire bizimodua hau dela ikustea (barreak). Niretzat izan da sorpresa handiena. Txikitatik Nintendoarekin ibili arren, inoiz ez nuen pentsatzen nire bizimodua hau izango zenik. Matematikak-eta gustatzen zitzaizkidan; beraz, matematika, fisika edo ingeniariaren bat ikasiko nuela pentsatzen nuen. Hau da, bide ohikoago bat, ulergarriagoa, gurasoak pozago laga ahal izango nituen ikasketa mota bat. Baina konturatu nintzen, gustatu arren, ez nuela nahi matematiketan buru-belarri sartzea eta, abentura bila, Eibartik urrun zeuden tokien bila ibili nintzen. Orduan, Iruñeako bideo jokoen zentroa aurkitu nuen eta igerilekura botatzea bezala izan zen, baina aukera aprobe txatu nuen eta orain hemen nago.

Noski, kontu bat bideo jokoen aritzea izango da



Mundu zirrargaria asmatu du Zarrauk 'The silent swan' bideojokoan.



eta, beste bat, bideo jokoak egitea. Pertzepzioa asko aldatzen da?

Normalean gertatzen da bideo jokoak egiten ari denak bideo jokoetan jokatzeari lagatzen diola. Antzeko zerbait gertatuko da beste kasu batzuetan ere, pentsatzen dut. Adibidez, mendiak gustoko badituzu eta topografoa bihurtzen bazara, agian mendiaz nekatzen amaituko duzu, hiru urtetan zehar mendi bera toki ezberdinetatik igo behar baduzu behin eta berriz gauzak neurtzeko. Paradigma aldatzen da zentzu horretan, bai.

Zure kasuan hori aldatu egin da?

Bai eta ez. Jakina, gero eta gehiago jakin ahala bideo jokoetan jokatzeko dudanean trukoak eta abarrak gehiago ikusten ditut. Dena dela, joko onak lehen bezain beste disfrutatzen ditut, eta joko txarrak ez zaizkit gustatzen lehengo neurri berean.

Nolako jokoak da The Silent Swan?

Joko oso narratiboa da. Gure taldearen historia bera kontatzen du. Hasieran mugak genituen, ez genituen programatzaile asko, baina bai artista asko. Orduan, ez da Call Of Duty moduko joko tradizional bat (tiro egitekoak eta oso animatuak), oso lasaia da, baina oso polita eta mundu erraldoi eta ezberdin batetik eramaten zaitu istorio bat kontatzen dizun bitartean.

Nolabaiteko trebezia behar da jokatzeko?

Ez da trebezia berezirik behar, baina bideo jokorik

jokatu ez duenari kostatu egingo zaio. Azkenean, edozein bideo joko jokatzeko, nolabaiteko sinkronizazio psikomotrizia behar da. Auto bat gidatzea bezala da. Balazta zapaldu, eskuekin bolantea gidatu, batera eta bestera begiratu behar da aldi berean... Behin hori jakinda, moldatu zaitezke. Ba bideo jokoarekin antzera. Hori edukita, edonork jokatu dezake.

Zuk nolako lana bete duzu bideo jokoaren sorkuntzan?

Lehenik, talde guztiaren antolakuntzaz arduratu naiz. Eta bideo jokoari dagokionez, diseinua eta bertan kontatzen den istorioa sortu ditut.

Nolako harrera izan du?

Oso ona. Pentsatzen genuena bezain ona, izugarri aberatsak bihurtu barik. Oso zaila da lehen jokoarekin hori lortzea (splash egitea), baina gure espektatiba zen nahikoa analisi edukitzea batzbesteko bat lortzeko. Hau da, kopuru minimo bat lortu behar duzu batzbesteko bat edukitzeko eta, hori lortuta, gure esperantza zen batzbesteko hori txarra ez izatea. Zorionez, erraz lortu dugu batzbesteko hori pasatzea eta harrera ona izan du, bideo jokoen plataforma nagusienean %90etik gorako iritzi positiboak dituelako. Beraz, ez gara aberastu, baina harrera positiboa izateak eta PlayStationerako bideo jokoak fisikoki kaleratzeak (oso joko gutxik lortzen dute) aurrera egiteko behar genuen motibazioa eman digu.



Erizen magiak liluratuta utzi zituen haur eta helduak

Eriz magoaren ikuskizunak aho bete hortz laga zituen Euskararen Egunaren bezperan Coliseora hurbildu ziren haur zein helduak. Magia-saio ederra eskaini zuen Erizek ...eta kitto! Euskara Elkarteak familientzat antolatutako ekitaldian. Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familientzat antolatutako ikuskizuna irekia izan zen, eta Eibarko familia ugari hurbildu ziren Coliseora, zapatu goiz ederra igaroz.

VIII. Gilda Lehiaketa egin da aste honetan Eibarren

Aste honetan egin da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Gilda Lehiaketaren VIII. edizioa. Guztira 19 tabernak hartu dute parte eta epaimahaiak hiru egunetan probatu ditu taberna horietako gildak. Ebazpena datorren astean eman go du. Iazkoari jarraituta, aurten ere hiru sari banatuko dira: batetik, epaimahaiaren biak, gilda tradizional onenari eta berritzaileenari eta, bestetik, herritarrek aukeratutakoa. Diplomarekin batera 150€-ko saria jasoko dute irabazle guztiek, eta bo-

toa eman duten herritarren artean bi lagunentzako asteburuko egonaldia zozketatuko da. Irabazleen izenik jakin ez arren, epaimahaiak zertxobait aurreratu digu nola ikusi duen aurtengo lehiaketa: "Urtetik urtera parte-hartzaileen kopuruari eutsi egiten zaio, hogeiren bueltan ibiltzen gara beti eta horrek asko esan nahi du. Herrian giro ikaragarria sortzen da. Baina, horrez gainera, aurten ere maila polita ikusi dugu, lehengaietan kalitatea nagusitu da, eta berritzen ere ausartu da bat baino gehiago".

Olentzeroren etxean izan dira Berbetaneko familiak

Gabonak gainean ditugula-eta, zer plan hoberik Olentzero eta Maridomingiren etxea bisitatzea baino! Aukera hori eskaini nahi izan zien ...eta kitto!-k Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familiei eta, autobusa hartuta, Legazpiko Mirandaolarantz abiatu ziren Eibartik hogeitabat familia joan den hilaren 6an. Bertan, ipuina entzun eta gero, txikienek horrenbeste desio zuten momentua iritsi zen, Maridomingi eta Olentzero gertutik ezagutzeko momentua. Eurekin berba egiteaz gain, gutunak emateko ere aprobeztatu zuten txikienek.



Eibar FT-k Erregeetako oparia bilatuko du Athletic Ipuruan Kopatik kanporatuta

Kopako zozketak euskal derbi bat laga du final-hamaseirenetarako. Joseba Etxeberriaren Eibarrek Val-verderen Athleticen aurka jokatu du Ipuruan. Orain dela 11 urte bi taldeen artean jokatu azken Kopako kanporaketan, orduan 2. B mailan jokatzeko Gaizka Garitanoren Eibarko taldeak Marcelo Bielsaren Athletic kanporatu zuen: partidu bikoitzera jokatu kanporaketan, Ipuruan husna berdindu eta gero, San Mames zaharrean jokatu Kopako azken neurketan eman zen banakoarekin Eibarrek aurrera egin zuen.

Ordutik gauzak aldatu dira: orain Joseba Etxeberria lehoi ohiak gidatzen du aulkia eta Unai Vencedor ere taldean dago, Athleticetik utzita; bestalde, orduan Eibarko zelai erdian jokatu zuen Dani Garcia Athletic-en dago, Iñigo Ruiz de Galarreta eibartarra bezala. Ager Aketxe, Anaitz Arbilla eta Yanis Rahmani ere Lezamako harrobitik pasatutakoak dira. Kanporaketa hartan Athletic bidean geratu ba-

zen ere, Eibarrek oraindik ez dio Bilboko taldeari irabazi Ipuruan eta, Kopan jokatu sei neurketetan, hiru berdinketa besterik ezin izan du eskuratu.

Bi taldeek 2020an jokatu zuten azkeneko Ipuruan; emaitza 1-2 izan zen, orduan ere Athletic-en alde. Joseba Etxeberriarenek CF Lorca Deportiva eta UD Melilla, azken hori penaltietan, garaitu dituzte lehen bi kanporaketetan. Hamaseirenetarako kanporaketa urte berriaren lehenengoko asteburuan jokatu da, Erregeen eguna pasata, domekan eta 19:00etan hasita.



Galarreta eta Bielsa aurreko hamarkadan.



Unax Garcia omenduko dute zapatuan Unben Urkiko kadeteen partiduan

Kadeteen Gorengo mailan jokatu duen Urkiko taldea zapatuan bueltatu da lehiaketara Unax Garcia jokariaren heriotza dela-eta azken asteotan jokatu barik egon eta gero. Itzulera hori hilaren 16an izango da, eguerdiko 12:30ean hasteko iragarrita dagoen partiduan. Unbeko beheko zelaian jasoko du omenaldi hori Unaxek, guraso, kluba, Gipuzkoako futboleko ordezkari eta herriko aginteen presentziarekin.



Jon Ander Odriozola Goiricelaya

1. URTEURRENA
2022/12/18

Bat inoiz ez dago prest lagun bat galtzeko.
Joan bazara ere, betirako zaude gurekin.

- LAGUNAK -




Jose Antonio Gonzalez Perez

2023/12/09
Bergaran hil zen,
71 urterekin

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
famiario guztiok.

- ETXEOAK -




Kalamua Korrikalarikoek IX. Gabontraila egingo dute abenduaren 24an goizez

Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta, datorren asteko domekan Gabontrailaren edizio berri bat jokatu da. Goizeko 08:30ean abiatuko dira Klub Deportiboaren aurretik eta, “beti bezala, Santa Kurutzetik Kalamuara igoko dugu, Parlamentuan ospakizuna egin eta, ondoran, behera jaisteko”. 15 kilometro eta erdiko ibilbidea osatuko dute eta, kontuan izanda probak zailtasunik ez duela, “bi ordu eta erdi eta hiru orduren artean” amaitzea espero dute. Goranzko desnibel metatua 757 metrotakoa da.

Urteari amaiera emateko aukera bikaina da gaur egun 24an finkatuta duten Gabontraila. Trail irteera hori doakoa da eta edozeinek hartu dezake parte, baina antolaketa lana errazteko beharrezkoa da izena ematea kalamuakorrikalaritalka@gmail.com helbidean. Antolatzaileek, aurrekoetan bezala, “mendian federatua gotea edo bere segurua izatea” gomendatzen dute, “nahiz eta ibilbideak zailtasun teknikorik ez duen”. Eta frontala, mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait eramatea ere ez da soberan izango.

Neguko Bolen hiru-txirlo txapelketa Asola Berrin hasiko da zapatuan

Guztira lau jardunaldi izango dituen Neguko Bolak txapelketa zapatu honetan hasiko da Asola Berriko bolatokian, 17:00etan abiatutako tiraldiarekin. Beste hiru jaurtialdiak Markina-Xemeingo Lauzirikan (abenduaren 29an, 19:00etan hasita), Elgetako bolatokian (urtarrilaren 12an, 22:00etatik aurrera) eta Markina-Xemeingo Barinagan (urtarrilaren 10an, 17:00etan hasita) jokatu dira. Tiraldi bakoitzean parte hartzeko izen-emateak bost euro balioko du eta sei sari banatuko dira guztira, bost dirutan eta seigarrenenako ustekabearekin.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR - Real Betis (bihar, 18:30)

Gizonezkoen 2. Maila

Alcorcon - EIBAR (etzi, 14:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - San Ignacio (bihar, 15:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Hernani - EIBAR C (bihar, 18:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila

Aretxabaleta - EIBAR URKO (etzi, 16:30)

Erregionaleko Gorengo Maila

Aretxabaleta B - URKI (bihar, 17:45)

Erregionaleko 1. Maila

EIBARTARRAK - Mondragon B (etzi, 17:00)

Jubeniletako Ohorezko Maila

Athletic - EIBAR (etzi, 12:00)

Jubeniletako Liga Nazionala

Leioa B - EIBAR B (etzi, 11:00)

Kadeteetako Euskal Liga

Leioa - EIBAR (bihar, 13:15)

FOBALL-ZALETUA

- BOJ - Bar Marem (bihar, 09:00)
- Adahi - Garajes Garcia (bihar, 10:30)
- Malape - Xania (etzi, 09:00)
- Limpieza Rueda - Baserri (etzi, 10:30)

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Shar Zaragoza - MEK EIBAR (bihar, 17:45)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Uhartea (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Bera Bera (etzi, 11:45)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Laubide (bihar, 16:30)

Jubeniletako Euskadiko Liga

MEK EIBAR - Urdaneta (bihar, 10:00)

Kadeteetako Euskadiko Liga

MECALBE EIBAR - Urdaneta A (bihar, 12:00)

ERRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko Liga

Olimpico Pozuelo - EIBAR (bihar, 16:30)

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

Universitario Bilbao - EIBAR (bihar, 12:00)

SASKIBALOIA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - Añorga (etzi, 11:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Bosteko - Artesanos JUANTXO (bihar, 16:00)

Zast Zarautz - EIBAR B (bihar, 20:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

EIBAR C - Antigua Luberri (etzi, 09:30)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

Ciutat de Palma - URBAT (etzi, 12:30)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

Getxo - URBAT B (bihar)



Eibar Igerixanekoek hiru hitzordu izango dituzte asteburuan

Klubeko igerilari puntakoena, Paula Calvo, Bartzelonako Goi Errendimenduko Zentroan izango da, bertan Mireia Belmonte igerilari handiarekin entrenatzeko. Gaurtik domekara arteko asteburua irabazi zuen Eibar Igerixaneko igerilariak. Ipurua kiroldegian, bestalde, probintziako Master Txapelketa izango da jokoan biharkoan, Eibarko dozena erdi ordezkariarekin. Jardunaldi hori arratsaldeko 16:00etan hasiko da. Eta, azkenik, zapatu arratsaldean ere, alebin mailako Neguko Ligaren hirugarren jardunaldia jokatuko da.

Arraten jokatuko den Bolunburu Krosarekin amaituko da Euskadiko Kros Liga

Domekan jokatuko den Bolunburu Krosaren 72. edizioak aurtengo Euskadiko Kros Ligaren azken jardunaldia hartuko du. Proba antolatzen duten Eibarko Klub Deportivo atletismo batzordekoek azken urteotako zirkuitoari eutsiko diote eta jardunaldiak, ohikoa denez, bederatzi lasterketa izango ditu. Goizeko 10:15ean hasiko da lehenengoa eta eguerdiko 13:10ean abiatuko da azkenekoa. EAEko atleta onenak izango ditugu Arrateko zelaietan, eta ez dira faltako, ezta, Julen Teran eta Ugaitz Gartzia Deporrekordez kariak ere. Aukera bikaina izango da, beraz, atletismo goiz polit batekin gozatzeko.

Aipatutako bederatzi probak honakoak dira, hasiera ordua eta distantziari jarraituz: 10:15ean, emakumezko sub 16 eta mastezkoak (3.400 metro); 10:40an, gizonezko sub 16 eta mastezkoak (3.400 metro); 11:00etan, sub 18 eta sub 20 (4.400 m.); 11:30ean, absolutu eta sub 23 (8.200 m.); 12:10ean, infantil neskek (2.400



Aurtengo edizioako kartelaren irudia.

m.); 12:25ean, infantil mutilak (2.400 m.); 12:40an, alebin neskek (1.600 m.); 12:55ean, alebin mutilak (1.600 m.); eta 13:10ean, herriko benjaminak (600 m.).

Lourdes Magunazelaia Gonzalez de Audikana

5. URTEURRENA
2018/12/03

"Lagun on bat aurkitzea oso zaila da, galtzea hainbat zailagoa, eta ahaztea ezinezkoa"

- ZURE LAGUNAK -

Enrique Añibarro Zubizarreta

3. URTEURRENA
2020/12/04

"Beti izango zaitugu gogoan"

- ETXEOAK -

“Euskaraz barra-barra” eta “Euskeraz Primeran!” kanpainen aurkezpena egin zen martitzenean



Badira urte batzuk Eibarko Dendarien Elkartek, Gipuzkoa Merkataria, Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Eibarko Udalak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek lankidetzan dihardutela arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko. Orain, kanpaina berria jarri dute martxan.

Aipatutako eragile guztiek bat egin dute oraingoan ere, eta martitzenean Euskeraz Primeran! markaren berritasunak zein Euskaraz barra-barra marka bera aurkeztu zituzten, datozen egunotan herriko establezimenduetako hainbat erakusleihotan ikusiko ditugunak.

Urrian hasi zen Ane Lizarralde...eta kitto! Euskara Elkarteko teknikaria herriko establezimenduak bisitatzen. Euskararen presentzia, gaitasuna eta irizpideei buruzko establezimenduetako datuak bi urtetik behin berritzen dira. Euskara Elkartetik adierazi digutenez, “ia 500 establezimendu daude “Euskeraz Primeran! programarekin bat eginda eta heldu da momentua hasierako lehen hitza euskaraz egitetik haratago doazen aurrerapausoak emateko”. Horregatik, 2024ra begira mailaketa bat egingo da, eta gaur egungo oinarrizkoaz gain (beltza), zilarrezko eta urrezko markak ere egongo dira, establezimenduen euskararen erabileraren arabera. Eta, gainera, establezimendu bakoitzak euskarari lotutako erronka txiki bat hartzeko aukera izango du:

sare sozialetan euskara erabiltzea, erakusleihoko oharra edo prezioak euskaraz izatea... eta betetze mailaren arabera 2024. urte amaieran aitortza publikoa egingo zaie.

“Euskaraz barra-barra” Euskal Herri mailako marka zabalduko dute Eibarren ere

Eibarren aski ezaguna den Euskeraz Primeran! markaren ildo beretik, euskara erabiltzeko gaitasuna identifikatzeko eta aitortzeko marka bateratua sortu dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak: “Euskaraz barra-barra” du izena.

Marka bateratu horren helburua bezero euskaldunei euskaraz egiteko aukera dutela adieraztea da, “Euskaraz barra-barra” marka duten guneeetan bermatuta egongo baita euskaraz ulertzeko gaitasun nahikoa duen langileren bat egotea.

Eibarrek bat egin du Euskal Herri osoan zabaltzen ari den marka horrekin, eta bateragarria izango da Euskeraz Primeran!-ekin ere.



Eibarren zerbitzuen sektorean euskararen erabilera bultzatzeko helburua duen "Euskeraz Primeran!" egitasmoa berrikuntzekin dator 2024ra begira. EKHI BELAR

Hauexek dira aipatutako markak eskuratzeko irizpideak:



Barra-barra eskuratzeko gutxieneko baldintza da establezimenduan bezero euskaldunaren mezuak ulertzeko gai den langileren bat egotea momentu oro. Alegia, bezero hori hizkuntza aldatzera ez behartzea. Establezimendua herritarrentzat irekita dagoen bitartean, beti ziurtatu behar da gutxienez langileren bat egongo dela herritar euskalduna artatzeko.



Lehen hitza eta kanpoko elementu finkoen %50 elebidun izatea (ordutegia, zabalik/itxita...)



Oinarrizko markako irizpideez gain, paisaia linguistikoa (erakusleihoa, establezimendu barruko oharra...) eta sare sozialetan %50 gutxienez euskaraz izatea. Jendaurreko harremanetan ulertzeko gai den eta elkarriketa elebidunak izateko prest dagoen langile bat egotea gutxienez.



Zilarrezko markako irizpideak %75era heltzen dira. Jendaurrean lan egiten duten langileen %75 euskara ulertzeko gai izan behar dira eta %50 baita hitz egiteko ere.

Oinarrizko, zilarrezko edo urrezko markak banatuko dira erabileraren arabera

Arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzea dute helburu egitasmoak



Klub Deportiboko argazkilarien erakusketa

Eibarko Klub Deportivoaren Argazki Taldearen erakusketa kolektiboa ikus daiteke Portalean atzoz geroztik. Urtero bezala, taldeko hainbat kidek ipini dituzte beraien argazkiak ikusgai: Bakarne Elejalde, Einer Rodriguez, Enrique Lorenzo, Federico Cuenca, Fernando Retolaza, Fernando Solana, Iraia Agirre, Jose Vila, Txema Artetxe, Jose Luis Irigoien, Jose Valderrey, Mikel Urionaguena, Oskar Baglietto, Pedro Arriola eta Virginia Arakistain. Oraingo honetan Eibarren gauz hartutako irudiak erakutsiko dituzte, urtarri-laren 14ra arte.



Hiru artistaren argazki eta pinturak Portalean ikusgai

Bihar arratsaldean zabalduko dute *baT + BaT + baT* izenburuko erakusketa Portalean, hiru artistaren lanekin. Olaia Peruarena, Gonzalo Etxebarria eta Patxi Laskarai aspaldiko lagunak dira eta elkarrekin erakutsiko dituzte beraien argazki eta margolanak, bakoitzak bere nortasunetik abiatuta, lotzen dituen zerbait badutela jendeari azaltzeko. Urtarrilaren 14ra arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.



“Eibarko Untzaga plazaren bilakabidea (1896-2010)” aurkeztuko dute eguaztenean

Javier Martin Lapeyraren *Eibarko Untzaga plazaren bilakabidea - Evolución de la Plaza de Unzaga (1896-2010)* liburua aurkeztuko dute eguaztenean, 19:00etan, udaletxean (2. pisuko batzar aretoan). Urteetako lanaren emaitza den liburua XIX. mendetik XXI. mendearen hasierara izandako aldaketa guztiak jasotzen ditu, eta Ego Ibarra batzordeak eman du argitara. Azaldu dutenez, “88 orrialde dauzka, eta ilustrazioak Untzaga plaza goitik hartuta egongo balitz bezala daude eginda. 1896, 1916, 1936, 1956, 1976, eta 2010ean plazan zer eraikin, altzari edo azpiegitura zegoen jasotzen ditu, eraikin eta elementu bakoitzaren deskribapenarekin. Azken zatian, hidrografiari buruzko aipu batzuk eta gerra zibilak Untzagan egindako kalteak dakartza”. Liburuan Javier Martinek egindako marrazkiak koloreztatuta azaltzen dira eta, horrez gain, Udal Artxiboko argazkiak eta planoak ere jaso dituzte, “horietako asko inoiz ikusi gabeak, baita beste leku batzuetatik jasotako argazkiak ere”. Aurkezpena egin eta hurrengo egunean ipiniko da salgai, 28 eurotan.

Aitzuri abesbatzaren kontzertua



Bihar 20:15ean hasiko da Debako Aitzuri Abesbatzaren kontzertua Karmengo Amaren elizan. Abesbatza Amaia Zipitria pianojolearen laguntzarekin arituko da, Xabier Carrilloren zuzendaritzapean.



“Reencuentros” aurkeztuko du bihar Andrea Gonzalezek

Mundu mailan laudorioak jasotzen dituen Andrea Gonzalez Caballero gitarra-jole eibartarrak kontzertua emango du bihar, Gabonetarako etxera itzuli dela aprobetxatuta. Gonzalez Caballerok bere azken grabazioa aurkeztuko du bertan, R. Sainz de la Maza, Isaac Albeniz, Francisco Tarrega, Manuel Lopez-Quiroga eta Manuel de Fallaren lanak dituen diskoa. *Reencuentros* izenburuko kontzertua 19:00etan hasiko da, Coliseon, eta sarreraren prezioa 10 eurokoa izango da (7 eurokoa Coliseoaren Laguna txartela dutenentzat).



Family Folks taldearen kontzertua domekan

Portalea Musika Klubaren eskutik emango du kontzertua Vigoko Family Folks taldeak domekan, 19:00etan Portaleko areto nagusian. *Naufraige* bere azken diskoan pop, psikodelia, country, blues eta rock-and-roll kutsuko doinuak bildu ditu taldeak, hirurogeiko eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadetako rock-and-rollaren eragin nabarmenarekin. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Deporren 100 urteak Euskal Jaian ospatzeko gonbidapena

Eibarko Klub Deportiboak 100 urte beteko ditu datorren urtean eta, hori dela eta, 59. Euskal Jaia berezia izango da. Kezka dantza taldekoek mendeurrena dantzan eta txistua jotzen ospatzeko asmoa dute. Horregatik, Eibarko dantzari eta txistulari guztiei, “belaunaldi eta garai guztietako” dei egiten diete datorren maiatzaren 26an, 59. Euskal Jai egunean, plazan denak elkarrekin jarduteko. Animatzen direnek izena emateko hainbat bide dauzkate: Kezkaren webgunean zein Klub Deportiboan eskuragarri egongo den inprimakia bete daiteke edo, bestela, Whatsapp bidali dezakete, Kezkaren 605 711 429 zenbakira (izen-abizenak, telefono zenbakia, emaila, eta dantzaria ala txistularia den esanez). Informazio zehatza Kezkaren webgunean dago eskuragarri. Bestalde, eguaztenean Klub Deportiboaren 100. urteurrenaren programa aurkeztuko diete bazkideei, 19:00etan Deporren.



Musika Eskolako abesbatzen kontzertua gaur Karmelitetan

Eibarko Musika Eskolako hiru koruek, Sostoa abesbatzak, Eibarko Koro Gazteak eta Juan Bautista Gisasolak, kontzertu korala eskainiko dute gaur, 20:00etan Karmelitetan. Sarrera doakoa izango da, eta belaunaldi ezberdinetako abeslarien ahotsaz gozatzeko aukera izango da bertan.



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

		8	6		3	4	
		2			9		
		3	4		7	6	
					4	5	
7	8	6			2	1	3
5		9					
9	2		5	8			
		3		1			
8	7		2	3			

8	7	6	5	4	3	2	1
9	8	7	6	5	4	3	2
7	6	5	4	3	2	1	9
6	5	4	3	2	1	9	8
5	4	3	2	1	9	8	7
4	3	2	1	9	8	7	6
3	2	1	9	8	7	6	5
2	1	9	8	7	6	5	4
1	9	8	7	6	5	4	3

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

**S
U
D
O
K
U**

8	7	6	5	4	3	2	1
9	8	7	6	5	4	3	2
7	6	5	4	3	2	1	9
6	5	4	3	2	1	9	8
5	4	3	2	1	9	8	7
4	3	2	1	9	8	7	6
3	2	1	9	8	7	6	5
2	1	9	8	7	6	5	4
1	9	8	7	6	5	4	3

soluzioa

	7	5	3	4			
			9	6			
		6				1	
3	5						
	9	4	1	3			
				2	6		
9			4				
	1	2					
4	7	8	3				

Abenduak 15 - 21

BARIXAKUA 15

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

LIBURU AURKEZPENA

17:00 Carmen Pirizen "Al cobijo de la encina" ipuina. Andretxea (Maistrak gela).

ZINEMA

19:00 CIMASUB Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Doan. Coliseo.

MUSIKA

20:00 Kontzertu korala. Sostoa abesbatza, Eibarko Koro Gaztea, Juan Bautista Gisasola koroa. Karmengo Amaren eliza.

DANTZA

20:00/21:00 Gabonetako erakustaldia, KOA dantza estudioaren eskutik. Errebal Plazia.

ZAPATUA 16

2. ESKUKO AZOKA

10:00/14:00 Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka.
11:30/14:00 Gabonetako apaingarriak egiteko tailerrak. Errebal Plazia.

TAILERRA

11:00/13:00 "Konektatzeko marrazten", Karla Acostarekin. Arrate Kultur Elkarte.

TAILERRA

11:00/14:00 Akwarela tailerra, Santi Entrenaren eskutik. Doan. Ipuruako Merkatu Plaza.

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

ZINEMA

12:00/13:30 Familientzako Txikizikloa. CIMASUB Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa. Doan. Coliseo.

TAILERRA

18:00/19:30 "Soinu bainua kuenko tibetarrekin", Begoña Ogizaren eskutik (izen-ematea eta informazioa: 650 146 415).

MUSIKA

19:00 "Reencuentros", Andrea Gonzalez Caballeroren eskutik. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

MUSIKA

20:15 Debako Aitzuri abesbatzaren kontzertua. Zuzendaria: Xabier Carrillo. Pianojolea: Amaia Zipitria. Karmengo Amaren eliza.

DOMEKA 17

KROSA

10:15 Bolunburu Krosaren 72. edizioa. Arrate.

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

MUSIKA

12:30 Cielito Eibarko Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Coliseo.

ANTZERKIA

18:00 Eibarko Eliza Ebangelikoaren "Txusma en la Navidad. Mi Navidad no se vende", (Egunsentia taldea). Doan. Uni Eibar-Ermua (areto nagusia).

MUSIKA

19:00 Family Folks (Portalea Musika Kluba) 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Portalea.

ASTELEHENA 18

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

BIDEO-FORUMA

18:30/20:00 Emakumeak historia egiten: Jodie Foster. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Andretxea (Behargiñen gela).

MARTITZENA 19

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

MASTER CLASS

18:00 Olio-pintura, Esteban Orozekin. Portalea (areto nagusia).

LITERATURA

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten: "Habiak", Maite Gurrutzagarekin. Portalea (1. batzartokia).

EGUAZTENA 20

IBILALDIA

08:11 Ikasten elkarte. Portugalete-Playa de la Arena-Pobeña. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua Estaziotik (08:13ean Ardantzatik).

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

MUSIKA

18:30 J.B. Gisasola Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua. Coliseo

LIBURU AURKEZPENA

19:00 Javier Martin Lapeyrenaren "Eibarko Untzaga plazaren bilakabidea (1896-2010)". Udaletxea.

AURKEZPENA

19:00 Klub Deportiboaren 100. urteurrenaren programa. Bazkideentzat. Klub Deportiboa.

EGUENA 21

HITZALDIA

10:00/12:00 "Hizkuntza eta hizkuntzak", Paco Hernandez Zaragozako Unibertsitateko Gaztelania eta Hizkuntzako irakasle erretiratuaren eskutik. Armeria Eskola.

EIBART ARTISAU AZOKA

11:00/14:00 & 17:00/20:30

Eibart - Gabonetako
19. artisau azoka. Untzaga.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Emailentzat odola emateko saioa. Untzaga Jubilatua Etxea.

OMENALDIA

17:30 Azitaingo bizilagunei aitortza. Harrera (Gure Kaiola taberna). Julio Zalabardo eta Anartz Esteban trikitilariarekin kalejira.
18:00 Diplomak banatzea. Musika zuzenean, bideo-emanaldia... Azitaingo Lanbide Heziketako Eskolara bisita eta psikolabisa. Azitain auzoa.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 16an: 22:30
- 17an: 20:00
- 18an: 19:30

“El viejo roble”
DRAMA



2023/Erresuma Batua/110'
Zuzendaria: Ken Loach
Aktoreak: Dave Tumer,
Ebla Mari, Debbie Honeywood
Nekazal giroa/Arrazismoa

2 ARETOA

- 16an: 22:30
- 17an: 17:00, 20:00
- 18an: 19:30

“El amor de Andrea”
DRAMA



2023/Espainia/101'
Zuzendaria: Manuel M. Cuenca
Aktoreak: Lupe Mateo Barredo,
Fidel Sierra, Cayetano Rodríguez
Familia girokoa/Abentura

ANTZOKIA

- 16an: 17:00, 19:45, 22:30
- 17an: 17:00 (1 Aretoa), 20:00

“Wonka”
ABENTURAZKOA



2023/Erresuma Batua/115'
Zuzendaria: Paul King
Aktoreak: Timothée Chalamet,
Calah Lane, Olivia Colman
Musikala/Prekuela

ANTZOKIA

- 16an: 17:00 (2 Aretoa)
- 17an: 17:00

“La Navidad en sus manos”
KOMEDIA



2023/Espainia/95'
Zuzendaria: Joaquín Mazón
Aktoreak: Ernesto Sevilla,
Santiago Segura, Unax Hayden
Gabonak/ Familian ikustekoa



Jon Ander Odriozola Goiricelaya

1. URTEURRENA
2022/12/18

“Maite dugunaren argia ez da sekula emetatuko”

BETI IZANGO ZAITUGU GOGOAN

- IRAIA ETA MIREIA -



FUNEUSKADI
Funeraria

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO GHEAHTO
ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **SARA**, hillaren 9xan 4 urte egin zenduazena. Musu haundi bat, printzesori, etxeko guztion partetik.



Zorionak, **JON** Berrizbeitia, txapeldun. Hillaren 7xan 5 urte bete zenduazena. Patxo haundi bat Danel, Unai eta Aratzen partez.



Zorionak, **BIHOTZ**, hillaren 7xan 7 urte bete zenduazena. Asko maite zaittugu. Zure famelixak eta, batez be, Ametsek eta Hodeik.



Zorionak, **MARTIN**, atzo 7 urte egin zenduazena. Etxekuen eta, batez be, Nikoleren partez.



Zorionak, **MALEN**, 7 urte egin dozuz-eta!! Musu haundi bat famelixaren partez. Jarraitu zaren modukua izaten.



Zorionak, **MAYA!** Martitzenian 7 urte beteko dozuz-eta. Egund politta pasa daizula, prexioxa!!! Asko maite zaittugun aitta, ama eta Izarrek.



Zorionak, **ALBA!!!** Bixar 6 urte beteko dozuz-eta. Oso ondo pasa! Asko maite zaittugu! Zure famelixaren partez.



Zorionak, **LUKA!** Gaur 9 urte bete dozuz-eta!! Asteburuan topera ospatuko dogu!



Zorionak, **HEGOI!!!** Eguaztenian 7 urte bete zenduazena!!! Musu potolo bat Markel eta etxekuen partez!!!



Zorionak, **AITOR!!** Hillaren 6xan 9 urte egin zenduazena. Patxo potoluak etxekuen partez.



Zorionak, **JULE**, martitzenian 8 urte bete zenduazelako. Segi alai eta jator. Patxo potolua etxekuen partez.



Zorionak, **MAIDER**, hillaren 13an 6 urte bete zenduazelako. Famelixa guztiaren eta, batez be, Jon zure nebaren partez.



Zorionak, **URKO** Lapeyra. Hillaren 11n 8 urte egin zenduazena. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Mikelen partez.



Zorionak, **HAIZEA!** Hillaren 12xan 6 urte bete zenduazena! Musu potolo bat famelixako guztion partez. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **ANDER**, 7 urte bete dozuz-eta! Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez!!!

Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Emakume batek etxebizitza hartuko luke alokairuan. 603258452.

1.3. Konpartitzeko

- Laguna behar dut pisua konpartitzeko Elgoibarko baserri batean. 669512815.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje itxia eta zabala alokagai Ipurua inguruan. 652775746.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Arratsaldetan eta asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 646821678.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 608401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa. 605402030.
- Emakumea eskaintzen da testuak digitatzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 670389880.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldean nagusiak edo umeak zaintzeko. 634651895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 612270162.

tak egiteko. 612270162.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 624416776.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita egoitzetan ere. 641417815 / 632768653.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta informea. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko jaiegun eta asteburuetan. Externa. 631425686.
- Garraiolaria eskaintzen da, furgonetarekin, erreka duak eta bestelakoak egiteko. 631935349.
- Neska eskaintzen da sukaldatu eta jakiak prestatzeko (eramateko janaria, pintxoak...) eta zainketarak egiteko. 612223075.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 679912841.
- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, biltegian lan egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. 641196232.
- Mutila eskaintzen da garbiketarak egiteko, obretan lan egiteko eta kamarero edo banatzaile bezala. Fagor Ederlanen jardundakoa. 631035853.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburu eta jaiegunetan. Externa. 631425686.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. 627086917.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiri sozio-sanitarioarekin). Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da enpresa batean egun osoko lana egiteko. 697586781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak arratsaldean zaintzeko (Geriatría tituluarekin). 652532589. Elvis.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 625200924.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Ingelesa ikasten diharduena behar du 12 urteko ume bati klase partikularrik emateko etxean. 607926886.

5.2. Eskaintzak

- Goi mailako jazz kontrabaxuko ikasleak musika teoria, baxu elektriko eta kontrabaxuko klaseak ematen ditu. 673366678. Alex.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

ZATOZ
ALDUNDIAREN EGUTEGIAREN BILA
Irribarre batekin



*Abenduaren 20an jaso dezakezu 18:00etatik aurrera
Eibarko Unzaga Plazan.*

*Eta abenduaren 18tik urtarrilaren 5era
Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen erakusketan.*

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN

Gabonetan Oparitu Eibar

Erosi zure Oparitu Eibar Txartela eta parte hartu 1000 €-rainoko balioa duten txartelen zozketan.



EROSIEIBARREN.EUS



RURAL KUTXA